

EUSKAL HERRIKO GAZTETXOEN ESKOLA-ORDUZ KANPOKO HIZKUNTZ ERABILERA

Kontxesi Berriotxoa
(EHU)

Helbide elektronikoa: kontxesi.berriotxoa@ehu.es

1. SARRERA

Artikulu honetan agertzen diren datuak 1999an 13-14 urteko gaztetxoen¹ euskararen egoerari buruz EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian egindako ikerketak eskaini zituenak dira².

Eskola-orduz kanpoko jardueretako euskararen erabilera aztergai duen BAT aldizkariaren zenbaki honetan datuok agertzen dira bi arrazoi nagusigatik. Batetik, pentsa litekeenez, orduko hizkuntz errealitatea ez dela zuritik beltzera aldatu izango, orduko eskola-orduz kanpoko eremuko hizkuntz datuak gaur egungo errealitatearen hurbilpen bat izan daitezke. Bestetik, Euskal Herri mailako informazio zehatz eta gaurkotuagorik egon ez dago, ez baita ikerketa hartatik geroztik aztergai honi buruzko hedapen horretako ikerlanik. Bistakoa da egoerari buruzko argazki gaurkotua eduki nahiko balitz, eta zein bilakaera izan duen ezagutu, ikerlan berri baten premia gongo litzatekeela.

Aipatu ikerketak, Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntz errealitatearen berri jasotzeko asmoz, euskarazko gaitasunari, erabilerari nahiz jarreari dagozkien aldagai ugariari buruzko informazioa aztertu zuen. Eskola-orduz kanpoko jardueren hizkuntz errealitatea hobeto ulertzeko beste



aldagai eta hizkuntz eremu batzuetako egoeraren berri ere jakitea kome-nigarria bada ere, artikulua honetan eskola-orduz kanpoko jarduerak anto-latuetakoz hizkuntz egoeraren sintesia baino ez dugu aurkeztuko, lagu-narteko euskararen erabilerrari buruzko zertzelada batzuekin batera.

Euskal Herriko 3.146 gaztetxoaren hizkuntz errealitateari buruzko informazioa jaso zuen aipatutako ikerketaren inkesta bidezko azterlan kuantitatiboak. Euskararen ezagutzari dagokionez, tipologia ezberdine-ko gazteek osatu zuten lagina, gaztetxo elebidunak zein gaztetxo erdal-dunak. Gaztetxo elebidunen eskola-orduz kanpoko erabilera da aztertu dena.

2. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ANTOLATUETAKO HIZKUNTZA

Alde batetik EAEko eta Nafarroako ikastetxeetan³ bertan egiten diren jar-duerak aztertu ziren, ondorengoak hain zuzen: eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak), informatika, musika, dantza-taldea, abes-batza eta kirol taldea. Horietaz gain, ikastetxetik kanpo egiten dituzten jarduerak ere itaundu zen, ondorengo jardueretak zehazki: eskola parti-kularrak (errekuperazioak, hizkuntzak), informatika, musika, kirol tal-dea, parrokiako taldea, aisialdiko elkarteak eta udako kanpaldiak.

Gaztetxoei galdetu zitzaizen zein zen monitorearekin erabiltzen zuten hizkuntza eskola-orduz kanpoko jarduerak horietan. Izan ere, monitoreak finkatu ohi du dena delako jardunaren inguruan sortzen den harreman-sarearen hizkuntzaren hautaketa. Hartara, harreman sarean ikuspegitik⁴ aztertuta, monitoreak erdiguneko kokapena du, batetik, berak dituelako harreman gehien eta, bestetik, berak duelako ere harremanen bitartekari kokalekua.

2.1. Ikastetxean bertan egiten diren jardueretan

Ikastetxeak antolatuta EAEko eta Nafarroako gaztetxo euskaldunek eskola-orduz kanpo egiten zituzten jarduerak euskararen erabilera mai-laren arabera antolatzen baditugu, ondorengo hurrenkeran agertuko lira-teke: gaztetxo euskaldunek eskola partikularretan zerabilten euskara gehiago (nagusiki euskaraz egiten du gaztetxoaren %62k EAEn eta %69k Nafarroan), dantza-taldea eta abesbatza (gaztetxoaren %49k nagusiki euskaraz EAEn eta %55ek Nafarroan) informatika eta musika bezalako jar-duerak, (%47 EAEn eta %45 Nafarroan) eta, azkenik, kirol taldean (%41 EAEn eta %44 Nafarroan).

Beste era batera esanda, Nafarroan, EAEn bezala, kirol taldean izan ezik beste jarduerak guztietan gaztetxo euskaldunek euskara gehiago erabiltzen zuten gaztelera baino. Baina ezin ahaztu dugu kirola zela, hain zuzen, aztertutako nerabeek gehien burutzen zuten jarduerak. Beraz, gazte gehiagok egiten zuten jarduerak zela gaztelera gehiago erabiltzen zen hura.

1.1. taula: Gaztetzoeususkaldunek ikastetxe barneko eskola-orduz kanpoko jardueretan monitorearekin erabilitako hizkuntza

HEGO EUSKAL HERRIA	Beti euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Bietan berdin	Erdaraz euskaraz baino gehiago	Beti erdaraz	Guztira
Eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak...)	50	13	12	9	16	100
Informatika, musika	34	13	9	8	37	100
Dantza-taldea, abesbatza	40	9	14	10	26	100
Kirol taldea	30	11	8	13	38	100

Laburbilduz esan liteke, eskola partikularrak eta udako kanpaldiak albo batera lagata, ikastetxeak esku hartzen ez zuen eskolaz kanpoko jardueretan erdara zela nagusi; bestela esanda, ikastetxetik aparteko gaztetzoeususkaldunaren aisialdi antolatuan nagusiagoa zela erdararen presentzia, lurralde guztietan errealitatea berbera ez bazen ere.

Beste era batera esanda, Nafarroan, EAEn bezala, kirol taldean izan ezik beste jarduerak guztietan gaztetzoeususkaldunek euskara gehiago erabiltzen zuten gaztelera baino. Baina ezin ahaztu dugu kirola zela, hain zuzen, aztertutako nerabeeke gehien burutzen zuten jarduerak. Beraz, gaztetzoeu gehiagok egiten zuten jarduerak zela gaztelera gehiago erabiltzen zuten hura.

2.2. Ikastetxetik kanpoko jardueretan

Dimentsio hau aztertzeko, Euskal Herri osoa kontuan hartuta, eskola-orduz eta ikastetxetik kanpo egin zitezkeen jardueren artean, berriz ere, kirola zen gaztetzoeususkaldun gehienek egiten zutena (%57), ondoren udako kanpaldiak (%46), hirugarren lekuan eskola partikularrak (%39), laugarrenik aisialdiko elkarteak (%34), bosgarrenik informatika edo musika jarduerak (%35) eta azkenik, jarduerak ez ohikoena parrokia taldean parte hartzea litzateke (%18).

Halako jardueretan parte hartzen zuten gaztetzoeususkaldunak bakarrik aztertuta, kirol talderen batean parte hartzen zuten gazte gehienek beti erdaraz aritzen ziren monitorearekin (%41), eta beste horrenbeste gertatzen da parrokia taldean (%44), informatika eta musika saioetan (%40), nahiz aisialdi elkarteetan (%35). Ikastetxetik kanpoko eskola partikularretan heren batek (%33) beti euskaraz egiten du bertan eta beste heren batek (%33) beti erdaraz bertako irakaslearekin. Euskararen erabilera handiagoa suertatzen zeneko egoera udako kanpaldietakoa zen, gaztetzoeu gehienek baitzieten (%39) beti euskaraz egiten zutela monitorearekin.

Laburbilduz esan liteke, eskola partikularrak eta udako kanpaldiak albo batera lagata, ikastetxeak esku hartzen ez zuen eskolaz kanpoko jardueretan erdara zela nagusi; bestela esanda, ikastetxetik aparteko gaztetzoeususkaldunaren aisialdi antolatuan nagusiagoa zela erdararen presentzia, lurralde guztietan errealitatea berbera ez bazen ere.

Aurkeztutako jardueretan parte hartzen zuten Iparraldeko gaztetzoeususkaldunek ihardetsitakoa aztertuz agertzen zen, udako kanpaldietan izan ezik, beste eskola-orduz kanpoko jarduerak guztietan frantsesaren

erabilera gailentzen zela oso era nabarmenean gainera (parrokia taldea salbuetsita). Euskararen presentzia jarduera gehienetan oso bazterrekoa zela jakinda ere, euskara gehien erabiltzen zen jardueratik gutxien erabiltzen zen jarduerara antolatuz gero, honako hau litzateke hurrenkera: udako kanpaldiak (Iparraldeko gaztetxo euskaldunen erdiak egiten zuen nagusiki euskaraz monitorearekin -%50-), parrokia taldea (%39 aritzen zen euskaraz nagusiki), informatika eta musika (%20), eskola partikularrak (%13) eta azkenik, kirol taldea (%10).

Ikus daitekeenez, Iparraldeko nerabe euskaldunek eskolatik kanpo antolatutako jardueretan euskara erabiltzeko zituzten aukerak eskasak ziren benetan, bereziki maizen egin ohi diren aisialdi jardueretan.

1.2. taula: Iparraldeko gaztetxo euskaldunek ikastetxetik kanpoko jardueretan monitorearekin erabilitako hizkuntza

IPARRALDEA	.Beti euskaraz	.Euskaraz erdaraz baino gehiago	.Bietan berdin	.Erdaraz euskaraz baino gehiago	.Beti erdaraz	.Guztira
Eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak...)	13	0	13	24	50	100
Informatika, musika	17	3	5	20	55	100
Kirol taldea	5	5	10	23	59	100
Parrokia taldea	26	13	19	20	22	100
Aisialdiko elkarteetan-	-	-	-	-	-	100
Udako kanpaldietan	41	9	14	9	27	100

EAEko gaztetxo euskaldunen erdiak baino gehiagok (%55) nagusiki euskaraz egiten zuen monitorearekin udako kanpaldietan eta ia erdiak ere (%46) nagusiki euskaraz aritzen zen eskola partikularretan. Beste jarduera guztietan gehiago ziren nagusiki erdara zerabiltenak nagusiki euskaraz jarduten zutenak baino. Jarduerak euskaldunenetatik erdaldunenetara antolatuz gero, hurrenkera hau osatuko genuke: udako kanpaldiak (nagusiki euskaraz %55), eskola partikularrak (%46), informatika eta musika (%42), kirol taldea (%38), aisialdiko elkarteetan (%36) eta parrokia-taldean (%33).

Ikus daitekeenez, eskola-orduetatik eta ikastetxetik aparte antolatutako jardueretan, kasurik onenean (udako kanpaldiak) gaztetxo euskaldunen erdiak erabiltzen zuen euskara nagusiki eta kasurik okerrenean (parrokia taldea) hiru euskaldunetatik batek baino ez zuen egiten nagusiki euskaraz bertako monitorearekin.

1.3. taula: EAEko gaztetxo euskaldunek ikastetxetik kanpoko jardueretan monitoreaekin erabilitako hizkuntza

EAE	.Beti euskaraz	.Euskaraz erdaraz baino gehiago	.Bietan berdin	.Erdaraz euskaraz baino gehiago	.Beti erdaraz	.Guztira
Eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak...)	33	13	11	11	32	100
Informatika, musika	29	13	10	10	38	100
Kirol taldea	28	10	9	13	40	100
Parrokia taldea	28	5	10	10	47	100
Aisialdiko elkarteetan	29	7	14	14	36	100
Udako kanpaldietan	39	16	17	12	16	100

Nafarroan gaztetxo euskaldunek euskaraz egiteko aukera zeukaten sei eskola-orduz kanpoko ekintzetatik hirutan euskararen erabilera monitoreaekin erdararena baino handiagoa zen (Iparraldean bat bera ere ez eta EAEn bakarra). Euskaraz zekiten nerabe nafar gehiagok erabiltzen zuten euskara erdaraz baino udako kanpaldietan (nagusiki euskaraz egiten zuen gaztetxoek %70ek), parrokiako taldean (%55ek nagusiki euskaraz) eta eskola partikularretan (%53k nagusiki euskaraz). Beste jardueretan nagusiki euskaraz hiru gaztetxotatik batek inguruk egiten zuen (informatikan eta musikan %38-; aisialdiko elkarteetan %36-; kirol taldean %30).

1.4. taula: Nafarroako gaztetxo euskaldunek ikastetxetik kanpoko jardueretan monitoreaekin erabilitako hizkuntza

NAFARROA	.Beti euskaraz	.Euskaraz erdaraz baino gehiago	.Bietan berdin	.Erdaraz euskaraz baino gehiago	.Beti erdaraz	.Guztira
Eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak...)	44	9	6	3	38	100
Informatika, musika	27	11	4	9	49	100
Kirol taldea	26	4	8	13	49	100
Parrokia taldea	46	9	5	7	33	100
Aisialdiko elkarteetan	27	9	15	22	27	100
Udako kanpaldietan	48	22	8	9	13	100

2.2.1. Kirol jardueren hizkuntza ikastetxe motaren eta hizkuntz ereduaren arabera

Interesgarria iritzi genion gaztetxo euskaldunek gehien egiten zuten jardueraren (kirolaren) hizkuntza ikasgelako hizkuntz eredu eta ikastetxe motaren arabera arakatzeari, ikastetxean bertan eta baita bertatik kanpo ere⁶. Ondorengo taulak ikastetxean bertan eskola-orduz kanpoko kirol jardueretako gaztetxo euskaldunen hizkuntz erabileraren berri ematen du, aipatu diren bi aldagai horien arabera.⁷

1.5 taula: Ikastetxean kirola egiten duten gaztetxo euskaldunek monitorearekin erabilitako hizkuntza, ikasgela eredu eta ikastetxe motaren arabera

	A eredu	B eredu	D eredu	Ikastola publikatua	Ikastetxe publikoa	Ikastetxe pribatu laikoa	Ik. Pribatu erlijiosoa	Ikastola pribatua
Beti euskaraz	3	13	46	49	22	0	2	48
Euskaraz gehiagotan erdaraz baino	1	12	13	11	10	0	4	15
Bietan berdin	2	9	10	12	9	0	7	7
Erdaraz gehiagotan erdaraz baino	6	20	11	14	9	16	18	14
Beti erdaraz	87	45	21	13	50	84	69	16
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Ikastetxean bertan antolatutako kirol jardueri dagokienez eta ikasgela ereduari erreparatuz, ikus daiteke A ereduaren ikasten zuten gaztetxo euskaldunen %87k kirola eskolan, baino eskola-orduz kanpo, beti erdaraz egiten zutela. Baita B ereduko gaztetxo euskaldun gehienek ere (%45). Aldiz, D ereduko gaztetxo euskaldun gehienek (%46) eskola-orduz kanpoko kirola beti euskaraz egiten zuten.

Eskola-orduz kanpoko kirolaren hizkuntza ikastetxe motaren arabera aztertuz gero, antzeman zitekeen ikastetxe publikoetan, pribatu laikoetan zein pribatu erlijiosoetan jarduera hori beti erdaraz burutzea zela arruntena (%50, %84, %69 hurrenez hurren); halere, datuek erakusten zutenenez, bazegoen aldea ikastetxe publikoetatik ikastetxe pribatuetara gai honi zegokionez.

Ikastola pribatu nahiz publikatuetan, berriz, eskola-orduz kanpoko kirola beti euskaraz egiten zuten gaztetxo gehienek (%49k publikatuetan eta %48k pribatuetan); badira, halere, ikastetxe mota horietan %27k eta %30k kirola beti edo gehienetan erdaraz burutzen zutenak, hurrenez hurren (1.5 taula).

Arestian aipatu bezala, kirola da gaztetxo hauen artean hedatuen zegoen jarduera; hori dela-eta, ondoren, gaztetxo euskaldunek eskola orduetatik kanpo eta ikastetxetik kanpo antolatutako kirol jardueretan zein hizkuntzatan aritzen ziren aztertuko dugu, oraingoan ere, ikasgela-ko hizkuntz ereduaren arabera eta ikastetxe motaren arabera.

1.6. taula: Ikastetxez kanpo kirola egiten duten gaztetxo euskaldunak, hizkuntz eredu eta ikastetxe motaren arabera

	A eredu	B eredu	D eredu	Ikastola publikatua	Ikastetxe publikoa	Ikastetxe pribatu laikoa	Ik. Pribatu erlijiosoa	Ikastola pribatua
Beti euskaraz	6	13	40	42	23	7	6	39
Euskaraz gehiagotan erdaraz baino	1	8	12	12	9	0	4	11
Bietan berdin	9	8	9	10	8	29	9	8
Erdaraz gehiagotan erdaraz baino	12	20	11	17	9	0	22	14
Beti erdaraz	72	51	28	18	50	64	59	28
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Ikastetxetik aparte antolatutako kirol jardueretan⁸, oro har, ikastetxeak berak antolatzen dituenean ageri zaizkigun joera berberak errepikatzen dira.

Ikastetxean bertan eta ikastetxetik kanpo antolatutako kirol jardueretan gaztetxo euskaldunek bizi zuten hizkuntza errealitatea erkatuz gero esan liteke, ikasgelako hizkuntz ereduari begiraturaz, A ereduko gaztetxo euskaldunen artean gehiago zirela beti erdaraz egiten zutenak ikastetxeak antolatutako kirol jardueretan (%87), ikastetxetik kanpo antolatutakoetan baino (%72); hots, A ereduko gaztetxo euskaldunak ikastetxetik aparteko kirolean euskara gehiago erabiltzen zuela ikastetxeak antolatutakoan baino. B ereduko gaztetxo euskaldunen kirol jarduerak aztertuta berriz, ikus zitekeen ikastetxetik aparte beti erdaraz egiten zutenak (%51) gehiago zirela ikastetxeak berak antolatutakoetan baino (%45); hortaz, B ereduko gaztetxo euskaldunak ikastetxetik aparte beti erdaraz egiteko joera gehiago zeukaten ikastetxe barnean baino. Esandako hau D ereduko gaztetxo euskaldunen kasuan ere betetzen zela ikus zitekeen; hots, kirol jardueretan monitorearekin beti erdaraz gehiagok egiten zuela (%28) ikastetxetik kanpo antolatutako jarduera bazen ikastetxeak antolatutakoa zenean baino (%21).

Kirol jardueretako hizkuntz egoeraren deskribapena ikastetxe motaren arabera eginez, ikastetxeak antolatu zein ikastetxetik kanpo antolatu, ikastolen kasuan izan ezik, beti erdaraz aritzen ziren gaztetxoak ziren nagusi. Ikastoletan bertan antolatutako kirol jardueretan beti euskaraz jarduten ziren nerabeak (ikastola publikatuetan %49 eta pribatuetan %48) gehiago ziren ikastolatik kanpo kirola egiten zutenean beti euskaraz egiten zutenak baino (%42 ikastola publikatuetan eta %39 pribatuetan).

Ikastetxe pribatuei erreparaturaz, aipatzekoa da beraietatik kanpoko kirol jardueretan gaztetxo euskaldunek euskara gehiago zerabilzela (edo gaztelera gutxiago) ikastetxean antolatutakoetan baino (ikastetxe pribatu laikoetan beti erdaraz %84 ikastetxeak antolatutako kirol jarduera zenean

eta %64 handik kanpo antolatzen zenean; ikastetxe pribatu erlijiosoa zenean, bertatik antolatuta beti erdaraz %69 eta kanpoan antolatuta %59). Labur esanda, ikastetxe horiek txertatuta zeuden inguruneak baino euskaraz bizitzeko aukera urriagoak eskaintzen zizkieten bertako gaztetxo euskaldunei, hartara euskararen erabileraren normalizazioa galgatu.

Azkenik, ikastetxe publikoei so eginez gero, beraiek antolatutako eta ikastetxetik aparte antolatutako kirol jardueren artean ez zegoen alde aipagarririk euskararen erabilerari zegokionez; beste era batera esanda, ikastetxe publikoek kirol jarduerak antolatzerakoan euskarari ematen zioten toki bertsua eskaintzen ziotela bestelako antolatzaileek.

3. LAGUNARTEKO HIZKUNTZA

Jakina denez, gaztetxoaren bizitzaren funtsezko eremu bat lagunartekoa da. Ezbairik gabe, gaztetxoaren lagunarteko hizkuntz errealitateak zeresan handia dauka gaztetxoaren hizkuntz bizieran. Beraien identitatea bezala lagunartea ere eraikitze eta osatze prozesuan dagoen heinean, nerabeek hainbat lagunarte izan ditzaketela jakinda, lagunaren harreman sare ezberdinetako hizkuntz erabilera ikertu genuen: ikaskideen arteko hizkuntza erabilera –ikasgela barrukoa eta ikasgelaz kanpoko-, koadrilako lagunaren artekoa eta auzoko gazteen artekoa.

Lagunarte ezberdin horietako hizkuntza erabileraz gaztetxoek eskainitako informazioari esker esan genezake:

Ikaskideekin, klasean bertan, hitz egiterakoan, nerabe euskaldunetik⁶ %41ek nagusiki erdaraz hitz egiten zuen (%19k beti erdaraz eta, %22k erdaraz gehiago); nagusiki euskaraz aritzen zirenek antzeko pisua dute (%45) (%28k beti euskaraz, eta %17k euskaraz gehiago). Aldiz, ikasgelatik kanpoko ikaskideekin nagusiki euskaraz berba egiten zutenak gutxiago ziren (%31). Gure ustez, hamalau puntuko alde horrek gaztetxo euskaldunen euskararen erabilera ikasgelari lotzen zaiola adierazten du.

Ikaskideekin, klasean bertan, hitz egiterakoan, nerabe euskaldunetik %41ek nagusiki erdaraz hitz egiten zuen (%19k beti erdaraz eta, %22k erdaraz gehiago); nagusiki euskaraz aritzen zirenek antzeko pisua dute (%45) (%28k beti euskaraz, eta %17k euskaraz gehiago). Aldiz, ikasgelatik kanpoko ikaskideekin nagusiki euskaraz berba egiten zutenak gutxiago ziren (%31). Gure ustez, hamalau puntuko alde horrek gaztetxo euskaldunen euskararen erabilera ikasgelari lotzen zaiola adierazten du.

1.7. taula: Nerabe euskaldunen lagunarteko hizkuntza, egoeraren arabera

	Ikaskideekin ikasgelan	Ikaskideekin ikasgelatik kanpo	Koadrilako lagunekin	Auzoko gazte gehienekin
Beti euskaraz	28	20	22	20
Euskaraz gehiago	17	11	8	10
Bietan berdin	14	10	10	9
Erdaraz gehiago	22	22	20	16
Beti erdaraz	19	36	38	40
Beste kasuak	0	1	1	5
Guztira	100	100	100	100

Beraz, ikaskideekin ikasgelan bertan izan ezik, gainontzeko ingurune edo egoeretan erdararen erabilera nagusitzen zen Euskal Herriko gaztetz euskaldunen artean.

Ikaskide berberak tartean izan arren, euskarak ikasgelan bertan duen babesetik kanpo hizkuntza horren erabilera nabarmen higitzen da; galera hori argiago utziko luketen datuak 1.8. taulan agertzen dira. Horren arabera, ikasgelan bertan beti euskaraz egiten zutenetik bi herenek (%63) eusten zioten euskarari ikasgelaz kanpoko jardueretan.

Nerabeek bizi ziren auzoko bizimoduan bertako beste gazte gehienekin zituzten harremanetan ere, gaztetz euskaldun gehienek erdaraz hitz egiten zuten nagusiki (%56).

Eskola giroa alde batera utzita, gaztetzoez, euskaraz zekiten arren, beraien koadrilakoekin berba egiteko (ikaslideak koadrilako lagun ere izan ditzake), nagusiki erdara erabiltzen zuten (%58) (1.7 taula).

Beraz, ikaskideekin ikasgelan bertan izan ezik, gainontzeko ingurune edo egoeretan erdararen erabilera nagusitzen zen Euskal Herriko gaztetz euskaldunen artean.

Ikaskide berberak tartean izan arren, euskarak ikasgelan bertan duen babesetik kanpo hizkuntza horren erabilera nabarmen higitzen da; galera hori argiago utziko luketen datuak 1.8. taulan agertzen dira. Horren arabera, ikasgelan bertan beti euskaraz egiten zutenetik bi herenek (%63) eusten zioten euskarari ikasgelaz kanpoko jardueretan.

1.8. taula: Ikasgelan "Beti euskaraz" egiten duten gaztetzoez ikaskideekin ikasgelatik kanpo duten erabilera

	Ikasgelatik kanpo
Beti euskaraz	63
Euskaraz gehiagotan erdaraz baino	18
Bietan berdin	7
Erdaraz gehiagotan erdaraz baino	9
Beti erdaraz	3
Guztira	100

Lagunarteko hizkuntz erabilera jorratzen segitzeko, 1.9. taulan biltzen dugu gaztetz euskaldunek, ikasketa-ereduaren arabera, lagunarteko lau gunetako bakoitzean duten hizkuntz portaera.

1.9. taula: gaztetz euskaldunen euskara erabilera, hizkuntz ereduaren arabera

	A eredia				B eredia				D eredia			
	Ikas-gelan	Ikasge-latik kanpo	Koadri-lan	Auzoko neska-mutilekin	Ikas-gelan	Ikasge-latik kanpo	Koadri-lan	Auzoko neska-mutilekin	Ikas-gelan	Ikasge-latik kanpo	Koadri-lan	Auzoko neska-mutilekin
Beti euskaraz	0	1	4	4	12	9	10	9	46	32	34	33
Euskaraz gehiago	1	1	2	4	11	6	3	6	26	18	13	14
Bietan berdin	3	3	5	6	18	5	10	8	16	14	12	12
Erdaraz gehiago	32	15	14	13	41	25	20	21	10	24	23	17
Beti erdaraz	64	80	74	73	17	54	57	56	2	12	18	24
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

A ereduko ikasle euskaldun gehienek ikasgelan (%64) zein ikasgelatik kanpo (%80) beti erdaraz egiten zuten; gaztetz euskaldun gehienak, era berean, koadrilako lagunartean eta baita auzoko neska-mutilekin ere, %74 eta %73 hurrenez hurren, erdara hutsean bizi ziren.

B eredu nerabe *euskaldunak* ikasgelan erdaraz gehiago aritzen ziren (%41) euskaraz baino, eta ikasgelatik kanpo, berriz, beti erdaraz aritzen zirenak nagusitzen ziren (%54). Koadrilako lagunartean edota auzoko neska-mutilekin daudenean, gehienek (%57 eta %56) beti erdaraz egiten zuten. Ikus daitekeenez, beti erdaraz aritzeko joera altuagoa zen A ereduaren artean B ereduaren artean baino, bien kasuan tokia gehienetan erdaraz irabazia baldin bazuen ere.

D eredu nerabe *euskaldun* gehienek (%46) ikasgelako ikaskideekin beti euskaraz egiten zuten. Esanguratsua eta nabarmendu beharrekoa iruditzen zaigu ikasgelan nagusiki euskaraz aritzen zirenak %72 izatea. Datu horren atzetik D eredu gaztetxoek jatorri (eta erraztasun) erdaldua nahiz erdal munduaren pisua aurki daiteke, hau da, ama hizkuntza, etxe-giroa eta kale giroa erdaldundun izan dituzten gazteak, eskola guztiak euskaraz jaso arren, ikaskideekin informalki hitz egiten dutenean, euskaraz aritzeko nahikoa “indar” ez dutenak (%28).

D eredu gaztetxo *euskaldunak*, behin ikasgelatik aterata, ikaskideekin ikasgelan bertan baino gutxiago egiten zuten euskaraz (beti euskaraz ikasgelan %46 eta ikasgelatik kanpo %32). Eskolatik urrundu ahala, hazi egiten zen nabarmen erdararen erabilera; horrela, ikasgelan bertan erdaraz nagusiki egiten zutenak %12 dira, ikaskideekin ikasgelatik kanpo nagusiki erdaraz jarduten zuten %36k, koadrilakoekin %41ek eta auzokoekin ere %41ek (1.9. taula).

Koadrilako lagun guztiak euskaraz jakin arren, gaztetxo *euskaldun* gehienek (%47) koadrilan nagusiki erdaraz egiten zuten (%29k beti erdaraz, eta %18k erdaraz gehiago); halere, egoera eta baldintza horietan euskaraz nagusiki erabiltzen zutenen pisua ez zebilen oso urrun: %42k euskaraz erabiltzen zuten nagusiki (%31k beti euskaraz, eta %11k euskaraz gehiago). Koadrilan, denek jakin beharrean, gehienek jakinda ia bikoiztu egiten zuten erdararen presentzia nagusia (%81) eta ia desagertu euskararena (%8).

Auzoko neska-mutilekin, denak *euskaldunak* direnean, nerabe gehienek (%47) nagusiki euskaraz egiten zuten (%36k, beti euskaraz, eta %11k, euskaraz gehiago); halere, ia beste horrenbeste (%43) ziren nagusiki erdaraz aritzen zirenak: (%30 beti erdaraz, eta %13 erdaraz gehiago). Euskaraz dakiten auzotar gaztetxoak denak izan gabe, gehienak zirenean euskaraz zekitenak, euskararen erabilera nagusia 20 puntu jaisten zen (%25) eta erdararena 25 hazi (%65).

Egindako azterlanak erakutsi zuen, auzokoekin euskararen erabilera gailendu zedin, ezagutzaren aldetik behar zen nahikotasun maila denek jakitea zela, bestela bada (gehienekin jakinda ere), erdararen erabilera nagusitzen zela. Koadrilako lagunartean gauza bera espero bazitekeen ere, lortutako informazioaren arabera, ez zen hori gertatzen. Denek jakinda ere, erdararen erabilera zen nagusi. Hau horrela, erabilera bermatzeko ezagutza aldetiko nahikotasun-maila (soziala) ez zela gako bakarra gelditzen zaigu agerian. Aipagarria izan daiteke ikustea Iparraldeko gaztetxo

Egindako azterlanak erakutsi zuen, auzokoekin euskararen erabilera gailendu zedin, ezagutzaren aldetik behar zen nahikotasun maila denek jakitea zela, bestela bada (gehienekin jakinda ere), erdararen erabilera nagusitzen zela. Koadrilako lagunartean gauza bera espero bazitekeen ere, lortutako informazioaren arabera, ez zen hori gertatzen. Denek jakinda ere, erdararen erabilera zen nagusi. Hau horrela, erabilera bermatzeko ezagutza aldetiko nahikotasun-maila (soziala) ez zela gako bakarra gelditzen zaigu agerian. Aipagarria izan daiteke ikustea Iparraldeko gaztetxo euskaldunen koadrila barneko erabilera nagusiki euskaraz zireneko kasuak kide denak euskaldunak zirenean EAEkoen eta Nafarroakoekin erabilera baino hamabost puntu altuagoa zela.

Gaur egungo gazteen errealitatea aztertzea beharrezkoa bada ere beraien hizkuntz ezagutza, erabilera eta jarrera zein den ezagutzeko (bereziki miatuz eta eraginez aisialdiaren esparrua), beharrezkoa iruditzen zait ere gazteagoei eredia eskaintzen dieten helduagoen hizkuntz jokabideak aztertzea eta errebisatzeari ekitea, euskararen normalizazioaren zama gehiegi gazteen bizkar gainean jarri gabe.

euskaldunen koadrila barneko erabilera nagusiki euskaraz zireneko kasuak kide denak euskaldunak zirenean EAEkoen eta Nafarroakoen erabilera baino hamabost puntu altuagoa zela.

4. Bukatzeko bi hitz

Gaur egungo gazteen errealitatea aztertzea beharrezkoa bada ere beraien hizkuntz ezagutza, erabilera eta jarrera zein den ezagutzeko (bereziki miatuz eta eraginez aisialdiaren esparrua), beharrezkoa iruditzen zait ere gazteagoei eredia eskaintzen dieten helduagoen hizkuntz jokabideak aztertzea eta errebisatzeari ekitea, euskararen normalizazioaren zama gehiegi gazteen bizkar gainean jarri gabe.

Euskararen normalizazioan lanean dihardutenek azpimarratzen duten bezala, euskararen erabilera euskaraz aisialdiaz gozatzeko eta harekin jolasteko bideak eginez areagotuko dela pentsatzen dut. Baina, heldu euskaldunen arteko komunikaziorako hizkuntza nagusia erdara dela erakusten bazaio gaztetzeari (jokabide hori trasgreditzen ez badu behintzat) helduen mundura sartzeko pasabidean euskara atzera uztekoa dela ari gatzazkio erakusten.■

OHARRAK

1. Nafarroan eta EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan eta Iparraldean Batxillergoko 4. mailan ikasten zihardutenak. Guztira 3.146 inkesta bildu ziren: 1.678 EAEn, 940 Nafarroan eta 528 Iparraldean.
2. Hainbat egile (2000): Etorrizuna Aurreikusten 99, Euskal Herriko gaztetzxoak eta euskara. Gasteiz. Iñaki Martínez de Luna.
3. Iparraldean ez zen ikastetxeetan eskola-orduz kanpoko egiten, hori dela eta, soilik EAEko eta Nafarroako gaztetzxoaren informazioa da duguna.
4. Ikus Hainbat egile (1998): *“Gizarte Sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa”*, BAT, 26. zenb. 59-84 orr. Harreman sareen ikuspegi teorikoak azterketa soziolinguistikoaren arloan izan dezakeen balioa eta aplikagarritasuna agertu nahian egindako hurbilpen azterlana.
5. Ikastetxean bertan antolatutako eskola-orduz kanpoko jardueren artean kirola zen gaztetzxo euskaldunek gehien egiten zutena (%57), ondoren informatika eta musika (%38); eskola partikularrak (errekuperazioak, hizkuntzak...) (%36) eta, azkenik, dantza edo abesbatza bezalako kultur jarduerak ziren gaztetzxo gutxien biltzen dituztenak (%19).
6. Kontuan hartzekoa da 14-16 urte bitarteko gaztetzxoaren artean kirola praktikatzeko dutenak mutilak direla. Hori dela eta, aldagai honen azterketak mutilen hizkuntz erabileraren berri ematen digu.
7. Gogoan izan behar da Iparraldean ikastetxean bertan ez zela halako jarduerarik burutzen.
8. Ikastetxeetako bertako orduz kanpoko jardueretan ez bezala, ikastetxeko kanpo antolatutako diren jarduerak hauek Iparraldean ere burutzen dira eta, beraz, hango gaztetzxoak ere barne dira.
9. Zabaleta, Olatz (2007): *“Asian aixe mintza” in Gazteak eta euskara*. Larrun aldizkaria, 106. zbk.10-11.